

EDITORIALA

CCOOk eta UGTren 'fronte sindikala'

CCOOk eta UGTk 'fronte sindikala' bat osatzea proposatu diete ELA eta LAB sindikatuei hainbat hedabideetan. ELAk ez du proposamen horren berri izan, baina agerikoa da hedabideetan agertu den proposamen bateraezina dela euren jardunarekin.

Bateraezina 2016ko uztailean *Elkarrizketa sozialeko mahaian* sinatu zen Akordioarekin. Bertan Jaurlaritzak, Confedaskak, CCOOk eta UGTk agintzen zuten gutxiengoan sinatutako akordioak sustatu eta zabalduko zituztela. Gutxiengoan akordioak babesteak patronalaren posizioa besterik ez du indartzen, honek lehenago ere aski pribilegio bazuen arren azken bi lan erreformei esker; horrela lan-hitzarmenak merkatu eta lan harremanak areago prekarizatzen dira. Mahai horretan iritsi den akordio bakarraren xedea izan dela euskal eremuko hauteskunde sindikalen emaitza indargabetzea izan da.

Bateraezina CCOOk eta UGTk negoziazio kolektiboa estatulatzeko duten borondatearekin. Zapateroren lan erreforma garatzen ari dira, hots, estatuko hitzarmenek bertokoen gainetik aplikatzeko lehentasuna izatea. Bi sindikatu horiek Estatuan hitzarmenak sinatzen dituzte gure negoziazio kolektiborako eskubidea galarazi nahian. Hau euskal langileen erabakitze eskubidearen aurka doa, baita negoziazio kolektiboko eremu propioaren alde.

Bateraezina *Elkarrizketa sozialeko mahaian* duten presentziarekin. Eurek esan dute, ordea, EAEn elkarrizketa sozialik "ez dela izan". Honen adibide da arlo publikoan ez dagoela negoziazio kolektiborik. Mahai horretako solaskide Jaurlaritzak dute; bada, gobernu horixe da negoziazio kolektiboa ukatzen duen lehena.

ELAk argi du Lan Harreman eta Babes Sozialeko Euskal Esparruaren alde lan egiteko borondatea, herri honetako langile-klasearen arazoak konpontze aldera. Gai honek lehentasuna izan behar du, eta ezin da baztertu autogobernuari buruz hasi nahi den eztabaidan. Ez dago autogobernuri bere negoziazio kolektiboko eremurik gabe, eta ezin da esan autogobernua dugunik geure eremuan euskal langileen baldintza soziolaboralak erabaki ezin diren artean; hots, Lan Harreman eta Babes Sozialeko Euskal Esparrurik gabe.

ELAk bere XIV. Kongresu Konfederala ekainaren 15 eta 16an egingo du Bilboko Euskalduna Jauregian, *Indarberritzen* leloarekin

INDARBERRITZEN

ELAk ekainaren 15 eta 16an Bilbon egingo duen XIV. Kongresu Konfederala aurkeztu zuen martxoaren 27an. (Oharra: *Astekariaren* ale hau martxoaren 24an itxi zen). Begi-bistakoa da zita oso garrantzitsua dela ekainekoa, azken urteetan egindako lana aztertzeaz gain etorkizunari begira sindikatuak dituen erronka nagusien inguruan eztabaidatzeko hitzordua baita. Eta, ingurura erreparatu besterik ez dago aurrean ditugun erronka horien zailtasunaz jabetzeko, langile-klasearen aurkako erasoak gero eta handiagoak diren tesuinguru honetan. Horregatik XIV. Kongresu honen leloa *Indarberritzen* izango da, hau baita sindikatuak hitzordu honetatik espero duena: indarberrituta ateratzea.

Astlehenean aurkeztu zen ponentziak lau ildo nagusi ditu: lan-erreformei aurre egitea; benetako eztabaida sozialik ez dela agerian uztea; Austeritate-politikei eta azken hauek bultzatzen dituztenei (patronala, gobernuak...) aurre egitea; eta prozesu subirano eta soziala martxan jartzea.

ELAko formazio arduradun Xabi Anzak azpimarratzen duenez, Kongresuan parte hartuko duten 736 ordezkari sindikalek eztabaidatuko duten ponentziak hiru berrikuntza nagusi ditu. "Lehenik eta behin, sindikatuan orain dela 2 urte martxan jarritako prozesua aipatuko nuke: genero berdintasuna lortzeko antolaketa sistema bera aldatzeko abian jarritako proiektua. Garrantzia handiko prozesua izango da hau, berdintasuna lortzeko asmoz sortutako ekimena, hain zuzen ere. Berdintasun hori bizitza pribatuan ezazik, sindikalgintzaren praktika eta aldarrikapenetan ere islatzea da asmoa"

"Antolaketari dagokionez, militantzia ahaldundu nahi dugu, ekintza sindikala, soziala eta politikoa indartze aldera. Helburu hori erdiesteko, antolaketa mailan baldintza egokiak sortu beharko ditugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da estrategikoki ondo antolatzea. Azkenik ideologikoki kapitalismoaren aurkako jarrera indartu nahi dugu; ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sisteman aldaketa integrala nahi dugu, baita erreproduzio sozialeko sistemetan ere".



PROPUESTA DE COMITÉ EJECUTIVO

El Comité Nacional ha aprobado la lista de personas y funciones del Comité Ejecutivo que propondrá para su ratificación a los 736 delegados y delegadas que tomarán parte en el XIV Congreso de ELA, que tendrá lugar los días 15 y 16 de junio, en Bilbao, bajo el lema *Indarberritzen*. La propuesta recoge que el actual secretario general –Adolfo Muñoz, *Txiki*– sea reelegido en el cargo. Esta es la propuesta entera para el nuevo Comité Ejecutivo.

Adolfo Muñoz - Secretario general

Amaia Muñoz - Secretaria general-adjunta. Tesorera. Iparralde

Amaia Aierbe - Servicios jurídicos

Xabier Anza - Formación

Iván Giménez -Comunicación

Laura González de Txabarri - Relaciones internacionales

Pello Igeregi - Negociación colectiva. Salud laboral. Euskera

Mitxel Lakuntza - Coordinación de Navarra

Mikel Noval - Políticas sociales. Gabinete de estudios. Medioambiente

Leire Txakartegi - Planificación estratégica. Política de igualdad y género. Acción social. Inmigración

Eustakio Uranga - Organización

Joseba Villarreal - Sindicalización

KONGRESUAREN INGURUKO
INFORMAZIO GEHIAGO:

www.ela.eus/kongresua



#EmanBostekoak!
Garaipenari!

Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia responden al Diputado general, Unai Rementeria

“NO SOMOS MARIONETAS DE NADIE Y SEGUIREMOS EN LA LUCHA”



Las trabajadoras huelguistas de las Residencias de Bizkaia se concentraron el 23 de marzo ante la Diputación para mostrar su rechazo a las manifestaciones realizadas por el Diputado general, Unai Rementeria, en una carta abierta recientemente publicada, en la que rechazaba responsabilidad alguna en la

búsqueda de soluciones al conflicto de las residencias y afirmaba que las trabajadoras estaban siendo manipuladas por el sindicato.

Las trabajadoras desmontaron punto a punto el discurso del Diputado general e insistieron en la idea de que la

Diputación es responsable última de este servicio público subcontratado y, por tanto, de las condiciones de trabajo precarias de sus 5.000 trabajadoras. “¿Es absurdo responsabilizar del conflicto a la Diputación Foral de Bizkaia cuando el hoy diputado foral, en el anterior conflicto, participó de manera activa en las reuniones habidas para solucionar aquel convenio?”, se preguntaron, al tiempo que criticaron el hecho de que “a día de hoy, la diputada de Bienestar Social –Isabel Sánchez Robles– no se ha dignado a reunirse con nosotras para solucionar el conflicto”.

En otro momento de la rueda de prensa, las trabajadoras explicaron la actual inacción de la institución foral por el hecho de que “algunos responsables de las empresas adjudicatarias del servicio han sido cargos electos de la propia Diputación o son miembros importantes del partido político que gobierna en la misma”. Al tiempo, descalificaron que la Diputación haya abonando a las empresas 5 millones de euros por servicios no prestados. “¿Cómo van a querer las empresas acabar con la huelga si la Diputación se la financia a costa de los impuestos de

todos/as, si así engordan sus beneficios?”, se preguntaron.

En relación a las manifestaciones del Diputado general afirmando que las trabajadoras están siendo manipuladas por ELA y que el sindicato utiliza el miedo para crecer en afiliación, las huelguistas negaron ser marionetas de nadie. “Las representantes de las trabajadoras y las huelguistas decidimos en cada momento los pasos que queremos dar y participamos activamente en todos los foros que nos corresponden”, afirmaron con rotundidad, para añadir, seguidamente, que “con sus manifestaciones, el Diputado ataca vilmente nuestra condición de mujer. Afirmamos alto y claro que nos ha costado mucho dar el paso de romper la sumisión a este sistema que nos quiere precarias, de romper nuestro silencio, de dar el paso de organizarnos y salir a la calle. Pero ya no hay sumisión”, advirtieron. “En todo este proceso –explicaron– hemos tenido el apoyo del sindicato y hoy podemos decir que si seguimos aquí es por la caja de resistencia que nos da de comer. Y sí, señor Rementeria, este conflicto no se ha solucionado aún porque somos mujeres”.

IRITZIA / OPINIÓN

REMENTERIA: LA EXPLOTACIÓN LABORAL COMO NORMA



El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, tituló *Mi versión* el artículo que el 19 de marzo publicó en *El Correo* para explicar su posición política respecto a la huelga de las trabajadoras de Residencias. Cada ciudadana puede tener su versión (o su opinión), pero Rementeria no es un vizcaíno más que se limita, con falsa humildad, a dar su versión. Él es el diputado general, el máximo responsable del servicio público para el que trabajan miles de trabajadoras y que atiende a decenas de miles de personas dependientes.

Su versión no es una más, sino la débil justificación de una decisión política deliberada y consciente para perpetuar condiciones laborales de explotación y un deficiente servicio público para las personas más débiles de la

sociedad, todo ello con un único objetivo: salvaguardar los beneficios de unas cuantas empresas, algunos cuyos titulares pertenecen al círculo político del propio Rementeria. Y la perpetuación de la huelga hará todavía más ricos a quienes se lucran con la privatización de este servicio: la Diputación que preside Unai Rementeria ha abonado más de 5 millones de euros a estas empresas por servicios no prestados. Por ese desagüe se van los impuestos de la ciudadanía vizcaína (esos impuestos que tanto preocupan al diputado) y los salarios que no cobran las trabajadoras mientras ejercen su derecho fundamental a la huelga. Por eso sabe tanto Unai Rementeria de empresas de éxito, porque ese éxito se lo deben a él y a sus decisiones políticas.

Si lo de Rementeria no puede ser una versión más, la de las trabajadoras del sector tampoco lo es. Estas mujeres sufren esa realidad cada día, desde hace años, salarios muy bajos y horarios de explotación, contratos temporales y jornadas recortadas: pobreza a cambio de cuidar personas. Estas trabajadoras no opinan desde fuera, como el diputado general de Bizkaia, ni dan versiones. Están dentro del problema, no pueden escaparse, ni abrir una puerta de escape para ver el asunto con cierta distancia o seguridad.

Su vida es conflicto. Pero no ahora, que están en huelga, sino desde que empezaron a trabajar en un servicio público subcontratado desde la Diputación que ahora preside Rementeria. Fue entonces cuando arrancó un conflicto que ahora aflora públicamente en forma de huelga, porque ahora es cuando el colectivo de trabajadoras ha reunido fuerzas para no seguir sufriendo en silencio.

Y eso es lo que molesta a Unai Rementeria: se ha roto el silencio. Ya no hay sumisión.

Hace unas semanas, en Santurtzi, prohibieron a un militante de ELA entrar a un encuentro vecinal con Rementeria al que estaba invitado, porque sabía que no iba a estar de acuerdo con lo que el diputado general dice y hace. Porque no se iba a callar, como tampoco se callan las trabajadoras de residencias. En su artículo (*Mi versión*, hay que recordarlo), el diputado general apunta a las trabajadoras de residencias (en realidad, a cualquier colectivo que se organice para defender sus derechos) como enemigas a las que hay que doblegar: les intenta meter miedo (“pasará otro año más de conflicto...”, llega a amenazar), y lo peor, las trata como ciudadanas de segunda, subalternas, manipulables, sin iniciativa ni capacidad política. Les falta al respe-

to... y lo hace porque son mujeres, mujeres que no se callan y que no ceden al chantaje ni de la Diputación ni de sus empresas amigas (unos ejemplos: el grupo Igurco obtuvo 3 millones de beneficios entre 2014 y 2015; Aita Menni y Sanitas se repartieron un millón y casi dos millones de euros respectivamente entre 2013 y 2014).

Y no ceden porque “el chantajista siempre vuelve”, como amenaza Rementeria en su escrito.

Hoy, desgraciadamente, líderes políticos llegan a altos puestos de responsabilidad demostrando autoritarismo; despreciando, en este caso, a miles de trabajadoras. Está claro quiénes chantajean y meten miedo a las trabajadoras: las empresas que despiden a mujeres por hacer huelga (con sentencias que han declarado nulos dichos despidos) y quien apoya políticamente esa estrategia de enconar el conflicto y no tomar en cuenta las ofertas de ELA para alcanzar un acuerdo que mejore el servicio y las condiciones laborales.

Porque, al parecer, en el marco mental del diputado general de Bizkaia la explotación laboral no se discute. Es el estado natural de las cosas.

Igor Eizagirre,
secretario general de ELA-Gizalan

La huelga convocada el 22 de marzo por ELA, LAB y STEILAS en la enseñanza pública no universitaria de la CAPV tuvo un amplio seguimiento, superior al 75%

"SI NO HAY RESPUESTA, LA DINÁMICA DE HUELGA Y MOVILIZACIÓN IRÁ A MÁS"

La inmensa mayoría de las y los trabajadores de la enseñanza pública no universitaria de la CAPV –más del 75%– secundó la convocatoria de huelga realizada por ELA, LAB y STEILAS para el 22 de marzo. Además, hay que destacar que fueron más de 18.000 las personas que participaron al mediodía en las manifestaciones de Gasteiz, Donostia y Bilbo para reivindicar el fin de las políticas de recorte, la mejora de las condiciones de trabajo y una educación pública que tenga como meta el desarrollo integral de las personas y de la sociedad.

Xabi Irastorza, responsable de ELA en Irakaskuntza, además de destacar el masivo seguimiento de la convocatoria, emplaza al Gobierno Vasco a que empiece a dar pasos en ese camino. "Si no hay respuesta –añade–, en los próximos meses la dinámica de huelga y movilización irá a más".

En este sentido, Irastorza destaca que el Gobierno Vasco sabe de sobra cuales son las principales reivindicaciones de los sindicatos que se movilizaron el 22 de marzo.

"Exigimos que se invierta en educación y que se incrementen las plantillas y recursos; la reducción de los inaceptables niveles de eventualidad; la disminución del número de alumnos y alumnas por clase; el fin de los recortes impuestos en salarios, sustituciones, bajas, jubilación...; el desarrollo de un modelo de inmersión en euskara que permita un alumnado euskaldun y plurilingüe; la retirada de la LOMCE y Heziberrri, y, dejando a un lado la mercantilización, que la educación sea un instrumento fundamental para garantizar la equidad, la justicia social, la integración y la cohesión en la sociedad".

INTENTO DE MANIPULACIÓN DEL GOBIERNO VASCO

El responsable de Irakaskuntza se muestra muy molesto con la actitud que tuvo el Gobierno Vasco en relación a la convocatoria de huelga. "El Gobierno Vasco, en su afán de ocultar el alcance real de la huelga, jugó muy sucio al manipular los datos relativos al seguimiento".

"Al recoger los datos la administración computó a todas las personas que a lo largo del curso han pasado por los centros, incluidas las que han hecho sustituciones, aunque en este momento no estén trabajando. Además, no tuvo en cuenta los datos del Consorcio Haurreskolak y dio a entender que la totalidad del personal del 10% de los centros en los que no consiguió recoger los datos no secundó la convocatoria. Es muy triste que un Gobierno manipule los datos así para ocultar el éxito de una convocatoria de huelga".



LABURREAN / BREVES

• ELA a favor del Decreto Foral "para la regulación de las lenguas propias"

ELA ha sido el único sindicato de la Mesa General que se ha posicionado a favor del Decreto Foral de Navarra para la regulación de las lenguas propias, porque entiende que aunque es muy escaso y llega tarde, es un paso importante de cara a la normalización del euskera.

En este sentido, ELA emplaza a los partidos que sustentan el Gobierno navarro a derogar la Ley del Vasqueño, la cual imposibilita el desarrollo de una lengua propia. Este decreto se ve limitado por esta Ley, pero avanza tanto en los derechos lingüísticos de la ciudadanía como en la formación de los y las empleadas públicas, y se ajusta a la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias.

• ELA, Korrikarekin

Martxoaren 30etik apirilaren 9ra Korrikaren 20. ekitaldia egingo da, bi urtetik behin Euskal Herriko txoko

guztia zeharkatzen dituen euskaren aldeko herri-lasterketa. Aurtengo ekitaldia Otxandion hasiko da, eta amaiera Iruñean izango du. ELAK, aurreko ekitaldi guztietan bezala, bat egin nahi du Korrikarekin. Horregatik ELAK bere militantzia osoari gure hizekuntzaren festa honetan parte hartzeko gonbita luzatu nahi dio.

• Greba Bilboko Occidental Hotelean

Bilboko Hotel Occidentaleko garbitzaileek greba mugagabea hasi zuten martxoaren 20an. Hotel hau Barcelo katearen menpe dago, eta honek subrogaziorako eskubidea ukatu dio hoteleko garbiketaz arduratzen den Samsic Iberiari, bertako langileen lanpostuen egonkortasuna zalantzan jarritz.

• El preacuerdo en Kutxabank supone más desigualdad, precariedad y destrucción de empleo

El 22 de marzo CCOO y Pixkanaka llegaron a un preacuerdo para la

firma del II Convenio de Kutxabank. En opinión de ELA la firma del preacuerdo incide en más destrucción de empleo y más precariedad, sobre todo para las nuevas contrataciones. Dicho convenio aumenta las desigualdades y la precariedad. En definitiva, un convenio que está basado en más destrucción de empleo y en la precarización y deterioro de las condiciones de trabajo.

• Manifestación el 1 de abril en favor de los derechos sociales

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria ha organizado una manifestación para el 1 de abril en Bilbao (17:30, Sagrado Corazón) en defensa de los derechos sociales. ELA, que forma parte de la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria, denuncia que se están recortando los derechos de la ciudadanía, afectando a los colectivos más castigados por la actual crisis económica: personas desempleadas, con empleos precarios, personas dependientes y perceptoras de pensiones mínimas.

ETA-REN DESARMATZEA ALBISTE POZGARRIA DA

Frantziako egunkari batek martxoaren 17an iragarri zuenez ETA apirilaren 8rako desarmatuko da. ELArentzat albiste pozgarri da. Sindikatu honek nabarmendu nahi du egoera honetara iristeko *bakegile* izeneko taldeak egin duen lana, baita prozesuarekin konpromisoa agertu duten pertsona, talde eta erakundeena ere.

Bestalde, ELArentzat oso positiboa da Eusko Jaurlaritzak albiste hau dela-eta adierazi duen jarrera, ekinbidea arrakastaz amai dadin laguntzeko prest baitago. Bestalde, garrantzitsua da gure herriko erakunde guztien babesa (Gasteiz eta Iruñeko gobernu eta parlamentuak eta Ipar Euskal Herriko Elkargoa), prozesua nazioarteko erakunde eta pertsona ospetsuek gainbegiratzea –esaterako Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak–, eta gizarte zibilaren sostengua ere.

Azkenik, testuinguru honetan ELAK Espainia eta Frantziako gobernuak galdegiten die beren gain har dezate la dagokien ardura, desarmatzea segurtasun baldintzarik egokienetan burutu ahal dadin.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen inguruko ekitaldia antolatu zuen martxoaren 17an Gasteizen

“ESPAINIAREKIN POLITIKA ANTISOZIALAK EZARTZEKO DAGO SOILIK ALDEBIKOTASUNA”



Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta 2.000 lagun inguru elkartu ziren martxoaren 17an Gasteizen Eusko Jaurlaritzak onarturiko aurrekontuen inguruko jardunaldian parte hartzeko. Lehendabizi ekitaldi bat egin zen Mendizorroza Kiroldegian. Bertan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten eragileetako ordezkariak aurrekontu horien inguruko irakurketa egin zuten hainbat arlotatik: langile-klasea, ingurumena, gazteria, gizarte prestazioak, feminismoa... Guztiak bat etorri ziren aurrekontuak gogor kritikatzeko orduan, ikuspuntu guztietatik aztertuta ere ezaugarri berdintsuak dituztelako: antisozialak dira eta ez dizkiete herritarren gehiengoaren beharrei erantzuten.

Mendizorrozako ekitaldian parte hartu zuen lagunen artean ELAko idazkari nagusia –Adolfo Muñoz, Txiki– izan zen. Muñozek gogor salatu zituen aurrekontu hauek, eta akordioa “betikoek” egin dutela azpimarratu zuen. “Aurrekontuak betikoen sostengua

izan dute: EAJ, PSE-EE eta PP. Zalantzarik al zenuten? Garrantzia duen guztian elkar hartuta jokatzeko”.

ELAko idazkari nagusiak salatu zuenez 2017ko aurrekontuak argi uzten dute Estatuarekin aldebia den eremu bakarra politika neoliberal eta antisozialak direla. “Horretarako ez dago inolako arazorik. Bat datoz doikuntza eta murrizketa politiketan. Bat datoz gai guztietan: gastu-muga, defizita, zorra ordaintzearen lehentasuna, zerga-politika, AHTarentzako gastua, RGI zalantzan jartzea... Agintean zegoenean, PSE-EEK PPrekin bat egin zuen. EAJk aurreko legegintzaldian PSE-EEekin batera agindu zuen, baita Aldundietako zerga-politika erabakitzerakoan ere; gainera, PPren laguntza izan zuen beharrezko zenean. Orain jeltzaleak eta sozialistak batera daudelarik, PP da murrizte politikari eusteko bazkidea”.

Gisa honetako ekitaldiak eskertu zituen Muñozek. “Guk esan dugu eztabaida hauek gizarte-eredurako funtsezkoak direla, eta erantzun digute isilik egon behar dugula; ez dugula zaratarik egin behar. Bada, gu ez gara isilduko. Politika ez da soilik Gobernuari dagokion zerbait. Ez dugu gizarte feudaleria itzuli nahi. Gauza publikoak eragin egiten digute, eta axola digute. Iritzia emateko eta proposamenak egiteko eskubidea dugu, gizarte demokratikoa nahi eta behar baitugu. Nazkatuta gauzka gobernu honek kritika onartzeko duen ezintasunarekin. Nazkatuta, mugimendu sindikalaren eta gizarte-mugimenduen iritzia gutxieteko jarreraz”.

“Gertatzen ari denak –gaineratu zuen– agerian uzten du gure arduradun politiko askoren kalitate demokratiko eskasa, agertzen dituzten jokabide gero

eta autoritarioagoak. Patronalari sekula ez diote esaten isiltzeko. Donald Trump eta horrelako pertsonaiek ez dute euskal autoritarismoa hobea egiten”.

BESTELAKO AURREKONTUAK POSIBLE DIRA

Bere hitzaldian ELAko idazkari nagusiak garrantzia handia eman zion bestelako aurrekontu batzuk lortzeari. Eta horretarako aukerak egon badaudela berretsi zuen. “Ordaintzen dugunok, tasa progresiboa daukagunok, langileok gara. Europako batez besteko mailaren aldean 6.000 milioi gutxiago biltzen da hemen. Legebiltzarrak eskatutako txosten baten arabera, iruzur fiskala 3.200 milioi eurokoa da. Haatik, Aldundiek iruzur honi ez diote jaramonik egiten. Sozietateen zergan biltzen den dirua zeharo jausi da (krisia hasi zenez erdira), zuloz josi baitute, batez ere enpresa handienek ordain ez dezaten. Fiskalitatea eskandalu hutsa da”.

“Hemos planteado que estos debates son esenciales para el modelo de sociedad y se nos ha contestado que nos callemos, que dejemos de hacer ruido. No nos vamos a callar. La política no es un bien patrimonial del Gobierno. No queremos volver a una sociedad feudal”



www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA EUSKAL SINDIKATUA 

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207